

Areatza, Dima eta Zeberion mendi martxak egingo dira hileon

10. eta 11. orrialdeak

Hilaren 24an bueltauko da Dimetal

Soziedad Alkoholika, Leize, Elbereth eta Herra taldeek joko dabe aurtengo Dimetal Fest jaialdian, ostean Dj Jarros, Dani Alvarez, izango da. Formatu txikiagaz bueltauko da Dimetal herriko plazara, baina hilaren 24an, arrastiko 18:00etatik aurrera metalzaleei burua astindu eta musikeagaz gozatzuteko aukerea emongo deutse. **13. orrialdea**



Onditz Iturbe laugarren Munduko KBko Txapelketan

10. orrialdea

Inbiu Eguna Igorren eta Merkarterea ospatuko dira urri lehenengoaren 17an

Igorreko euskerearen jaia eta Arteako euskal produktu eta kultureagazko zitea egun berean izango dira. Egun osoko egitaraua prestatu dabe herri bietan eta musikea eta jana, jaien osagarri nagusiak, ez dira faltauko.

Igorreko Inbiu egunerako berenberegiz sortutako kantua aurkeztuko da bazkaurrean. Umeentzako jolasak eta erromeria be egongo dira. Artean, merkaduz gainera, Maurizia Aldeiturriaga panderojolea ekarriko da gogora. Arteko Maurizia Aldeiturriaga eta Leon Bilbaoren eskultureak 25 urte bete dauz eta ekitaldia egingo dabe. Iluntzean, Aukeran jantza konpainiak *Maurizia* ikuskizuna eskainiko dau. **5. eta 7. orrialdeak**



ARRATIA

Arratitiek oinez, Bediatik Igorrera

Arratia Herriarik Herri ibilbidea hiru etapetan egiteko asmoagaz, urri lehenengoaren 11n, Bediatik Igorrera, lehenengo zatia egin eben Gorbeia Parke Naturalak antolatutako ekintza honetan parte hartu ebenek. Bigarren etapa, Dima-Zeanuri, neguan egiteko asmoa dago eta hirugarrena, Zeanuri-Ubide, udabarrian. **8. orrialdea**

ZEANURI

Gorbeia Suzienek mendiko lasterkari onenak ekarriko ditu

Urri bigarrenaren 8an, 09:00etatik aurrera, Skymasters-en finala jokatu da; Gorbeia Suzien Skyrunkers 32 kilometrokoa 09:15ean abiatuko da, eta 10:30ean 21 kilometroko Gorbeia Suzien eta Kadete, Gazte eta Junior Kategorietako Euskal Herriko Txapelketak. **9. orrialdea**

IGORRE

Andra eta gizonen arteko aukera bardintasunaren egoerea jakiteko galdetgia

Udala eta Mankomunitateko Bardintasun Zerbitzua, Igorreko Emakume eta Gizonen Bardintasun Diagnostikoa landuten dagoz Daiteke Gizarte Aholkularitza-gaz batera eta egoerearen barri jakiteko galdetegi bat zabaldu dabe herritarren artean. Online edo paperean erantzun ahal da eta hilaren 28an, 18:00etatik 20:00etara Kultur Etxean egongo dira Daitekeko teknikariak gura dauanari galdetegia beteten lagunduteko. **6. orrialdea**

begitu 20 urte

BAIETZ 50 LAGUN BARRI EGIN!

2022AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2022an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da:

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kezak, eskertronak, hausnarketak, burutazioak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratutako derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea

Edo, helbide elektroniko honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (IX). Kale berbakunea sustatu guran

Aditz guztiakaz gomutatzea sano gatxa danez, gaurkoan amarru erraz bat dakartsuet.

Aditz batzuetan -tsu agertzen bada -a- edo -na- ipiniko dogu hitano bihurtzeko.

Adibidez:

Mikelek egia esan deutsu.
Mikelek egia esan doa.

Opari bat ekarri deutsu Miren.
Opari bat ekarri doat Miren.

Horrek kristolango aprezioa dauksu.
Horrek kristolango aprezioa dekoa.

ERETXIA

Ura

Txikitan ez geunkan urik etxean. Etxe ondoko patinetik atera behar izaten zan garbiketarako. Edateko ura barriz, iturritik, manantialetik ekarten genduan, potizean. Umeen lana izaten zan gehienetan. Bidean olgetan be geratuten ginan batzuetan, eta ura epelduta helduten zanean bronkea entzuten genduan.

Erropak barriz, errekan garbituten zituan gure amak, auzoko beste andrak be hantxe egiten eben bogadea. Gu txipli-txapla ibiltzen ginan euren inguruan saltoka. Akordu politak daukadaz. Urteak joan ahala, halako baten, heldu zan ura etxeko suete edo ezkaratzera. Urte batzuk geroago labadorea, dutxea... sano aldatu zan gure bizimodua.

Leku guztietan ez zan holan izan. Akordetan naz Saharako gure udako alabatxoa lehenengo bider gurera etorri zanean, harrituta geratuten zala txorrotari begira. "Ez da amaituten?" itanduten eban. Izan be, ur eskasia edo gabezia ezetu ez dauanak ez dau behar bestean aprezietan. Euren basamortuan izan nintzanean urik eza zer dan bizi izan neban, bai horixe.

Maputxeen herrira joan nintzanean, osterera, hurretik ezetu neban euren ur aldarrikapena, eskakizuna. "Ura danona da" "Ez lapurtu gure ura" kartel handiak agertuten ziran bide bazterretan. Bertatik bertara jarraitutako aukerea izan neban kantaldi baten, abeslariak gogor altxatuten eben ahotsa "Maputxe herriko ura maputxeona da", "Multinazionalak kanpora", "Coca-Cola kanpora".

Nik urrin ikusi neban orduan, gurean alarmak biztu barik egon ziran oindino, edo neure buruan behintzat. Baina, hara non, heldu da geurera be ur arazoa. Murrizketak daukaguz hainbat herritan, gure inguruko landak gorrituta eta berdeguneak lehortuta, sikatuta. Iturriak agortuten hasita, honetan, neurri barik landatutako eukalipto arloek zerikusia daukie, antza.



MARISA BARRENA LARRUZEA

Ekintzailea

Ointsu uraren pribatizazioa aitatu eban Joseba Sarrionandia idazleak jente-aurreko berbaldi baten. Gure idazle filosofoak badino, erne ibili beharko dogu, ze, euri ura animalientzako erabilteko araudia be egiten ei dabil. Asmo hori aurrera badoa, ur hori kutsatuta dagoan atxakiagaz, ganaduzaleek ezingo dabe euren ganaduaren egarria asetuteko euri ura erabili, ondorioz ordaindu egin beharko dabe.

Bide horretatik Ur-Partzuergoa egingo jaku jaun eta jaube. Partzuergoa berbea bera be kosta egin jat ikasitea. Teorian, "Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa ur hornikuntza eta saneamentuaz arduratuten dan erakunde publikoa da, gaur egun, Bizkaiko biztanleriaren %91 horniduten dauana". Publikoa, baina interes pribaduak ei dagoz atzean, zurrumurru hori dabil behinik-behin.

Partzuergoa dala eta ez dala, Undurragako presako ura, Arrigorriagaraino eroaten dabe eta gero handik bueltetan da Arratiako hainbat etxetara. Ze nezesidade pentsau dot neure kautan. Ura hara-hona? Eta zenbat ordaindu behar dogu ibilaldi hori? Askok fakturak begiratutea baino ez dago.

Argi dago gero eta garestiago dala ura. Gero eta altuagoak ordaindu beharreko fakturak. Zenbat eta pribaduago, orduan eta karuago. Mobidu gaitzean dana guztiz pribatizau orduko. Aldarrikatu dagigun berandu izan baino lehen: "Ura danona da", "Ura guztion eskubidea da".

NETFLIX
EUSKARAZ

WWW.PANTAILAKTUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:

<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



MIKEL URRIZ

Erantzule ei gara

Dirudianez, negu gordina jatorku gainera. Energia krisia, oinarrizko elikagaien prezioen igoera, maileguen interesen igoera... Hamaika zoritxar jatorkuz eta arazoari aurre egiteko danok ei gara erantzule. Ukrainaren gerrea abiapuntutat, errusiar estadua- ren jarkerak krisi larri honen hasikerea da Europar Batasunaren mandatarien arabera. Tira! Ez dot esango epe laburreko ondorioetan neurri txiki-txiki baten zerikusia ez dauanik, ez dot be diagnosa zehatza egiteko asmo edota gaitasunik, baina benetako arazoa askoz zaharragoa eta oinarrizkoagoa dala otuten jata.

Iruzur erraldoi baten murgilduta bizi gara aspaldi. Etenbako hazkunde ekonomikoak izakiaren arazoak konpontzea dakarrela saltzean deuskue, aberastasuna, gizarte kohesinoa, gizarte zerbitzuak, desbardintasuna ezabatzeko bidea dala errepetiduten deuskue. Ha-ta guzti be, begi bistakoa da ez dala berez

eta ezinbestez holan gertatzen. Gure jente-arte honetan, aberastasuna gitxi batzuen esku gordeten da, ingurumeneko kalte konponduzinak eragin doguz ekoizte prozesu eta mega-azpiegiturak eregiz, baliagaien agortze prozesuan murgilduta bizi gara eta bizi kalidadea neurtuteko zorientasuna baizik konsumo parametroak erabilten doguz.

Urteak dira, etenbako hazkunde ekonomikoaren oinarriari aurre egiten ahaleginetan ibili garanok. Jon Maiaren berbetan sistemearen transgresoreak "ei" ginan belaunaldi horreetakoak. Bataila gehienetatik galtzaile atera gara. Abiadura handiko tren, errauskailuren aurkako, etxez etxeko zabor bilketaren erronea, errepide sareko azpiegitura erraldoien eraikuntzea... Biolentoak eta marjinalak izateaz gainera, ezetzean finkatuta gengozala esan deuskue kritika moduan, baina oin negu gordina gainera jatorkun une honetan, bakotxak, Ukrainan baino, bere zilbor-hestean erantzukizunak bilatu beharko leukez. Ez dodaz nireak -personalak eta norberaren kontraesanaz be-teak- ukatuko, baina ezin dodaz jasan atzen 50 urteotan agintean egon diran mandatarien negar-antuluak. Ezin dot irunsi diskursoa... Hona ekarri gaitue, joan daitezala pikutara!

ZERTZEAN



IMANOL URIGOITIA

Gaia jarrita: "Batuaren aldeko apustua"

1

Hamarkada bi atzera egin batua ez zen ulertzen, euskaraz berba ta bizi arren ez zekiten irakurtzen, baina BEGITU iritsi zela arratieraz mintzatzen, Arratiako etxe guztiak aukera berriz pintatzen, herritarrentzat irakurtzea hogeitaz a(ha)lbidetzen.

2

Denbora helduz, urteak landuz hobetu da egoera, jada batuak aurkitu ditu lekua ta gorpuzkera, euskalkientzat mesederako edo azken arnaskera, balioetsi bien bizia aurrerapenen aldera, etsai gehiegi ditugulako bizi gaitezen batera.

3

Txikiak eta etsai ugari orain ahultzen hasteko, ingurua ta inguruok prest gaude salto egiteko, gure auzoko egunkariak pasatu dira tarteko, batuak duen soinean sartuz gure esentziak janzteko, jada gu ere ez al gaude prest batuara pasatzeko?

Doinua: Gogoan daukat ez du aspaldi

BEGI TXINDORRA

Urtero lez, hainbat dira oporretako momenturik ederrenak geugaz konpartidu gura dabezana irakurleak. Horixe egin dau Arantza Etxebarriak eta Sardinian ateratako argazki hau bialdu deusku, han egiten eban haizea, Mediterraneoko argia eta gesal usaina Arratiara ekarteko.

Aurtengo Oporretako Argazki Lehiaketarako argazkiak bialtzeko hamar egun baino ez dira geratzen, hilaren 25ean amaitzen da epea eta. Aurrekoa zenbakian Mikel Amurizak marigoringoen argazkiagaz, eta oingoan Arantza Etxebarriak egin dauan moduan parte hartu gura badozu, bialdu lehenbailehen zure argazkiak, hiru gehienez, *begitu@begitu.eus* helbidera. Irabazleak landetxe baten astegoiaren pasa izango dau sarritzat.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Idazgaitza Zerbaita 101
R.P.S. 31/06

IGORRE

Igorrek 3.500 bonu ipini ditu eskuragarri Bonodenda kanpainan

Helburu bigaz jarri da martxan kanpaina. Alde batetik, herriko dendak bultzatzea eta bestetik, konsumitzaileei lagundutea, herrian erositako produktuak %33 merkatuz.

Erredakzioa

Hamar euroan erosi daitezkean bonuek hamabost euroko balioa izango dabe, eta holan, bonuakaz, %33 merkeago erosi ahal izango dira produktuak kanpaineagaz bat egindako dendetan, urri bigarrenaren 31ra arte.

Bonuok, amaitu arte edo hilaren 29ra arte erosi daitezke Mandoia kaleko Kultur Etxeko leihoan; astelehen, eguazten eta barikuetan 10:30etik 12:30era eta martitzen zein eguenetan, 18:00etatik 20:00etara. Erosleek NAN agiria

edo errolda ziurtagiria aurkeztu beharko dabe bertan. Gehenez, erosketa bakotxeko bonu bi pilatu ahal dira eta erositakoaren balioa bonuen zenbatekoa baino txikiagoa bada, ez da dirurik bueltan emongo.

Kanpainara atxikitutako dendak

Berrogeta zortzi dira kanpainara atxikitutako denda edo komertzioak; tartean, janari dendak, erropa dendak, dekorazioa, paperdendak, taberna eta jatetxeak. Baita, ule-apaindegiek, estetika zentruak edo tatuaje estudioak be bat egin dabe kanpaineagaz.



ARRATIA


Deiadar Mendien Eguna ospatuko dabe Gorbeian

Erredakzioa

Aurten hamazazpigarrenez, Deiadar Mendien Eguna ospatuko dabe Gorbeian urri lehenengoaren 24an. Gorbeia igoteko urtekera 09:30ean izango da Pagomakurren. 12:00etan egingo da deia kurutzetik Batzar Nagusirako eta 13:30ean, jai gunea egongo da aterpearen ondoan. Jarduera Bizkaiko Batzar Nagusiak antolatutau dau eta laguntzaileen artean Ganzabal Mendi Taldea dago.

Gorbeiaz gainera, Sollube, Kollitza, Ganekogorta eta Oiz dira deiadar mendiak. Sasoi baten Bizkaiko Batzar Nagusietara deitzeako, mendi horreetako tonto-

retatik adar handi bategaz tutua joz egiten zan deialdia.



Argazkia: Jabi Artaraz.

ARTEA

Bertoko produktuen merkadua eta euskal kulturearen jaia batuko ditu Merkarteak

Aurten 28 urte beteko ditu Merkarteak. 1994tik urtero lez, merkadua eta egun osoko jaia antolatu dauz Arteako Udalak.



Erredakzioa

Merkadua 10:00etatik 15:00etara izango da. Bertan 24 ekoizle eta 16 artisauen salmahaiak egongo dira. Goizean zehar, umeentzako puzgarriak egongo dira Ekomuseoaren atean, eta eguerdian, 12:00etan, Maurizia Aldeiturriaga eta Leon Bilbaoren eskulturearen 25. urteurreneko ekitaldia egingo da udaletxe ondoan. 13:00etan, Aitzol Atutxa eta Julen Larrea azkolariek erakustaldia egingo dabe. Ilun-

tzean, 21:00etan, Aukeran jantza konpainiak *Maurizia* ikuskizuna eskainiko dau eta ostean, Altxa Porru erromeria taldeak ipiniko dau jai giroa, 23:30etik aurrera.

Bezperan, 18:30ean, *Aupa Maurizia* dokumentala grabetan dabizan Arratia eta Kataluniako gazteek erromeria eskainiko dabe Arteako plazan.

Ekoizleek ondo balorautako merkadua

Hasikerako helburuak mantentzea, bertako ekoizle eta artisauen

lana bultzatu eta lagundutea hain zuzen be, eboluzino nahiko egonkorra izan dauala merkadua dino Gorka Beitia zinegotziak. "2010eko hamarkada hasieran behar bada bat susmau genduan baina suertez, barrero betiko zenbakietan gagoz, pandemiako urteak kenduta, jakina". Ekoizleek azoka honek beharrezkoak dituela eta asko baloretan dabezala dino, eta gizarteak gehiago baloratu beharko leukezala bertako produktuak gure ekonomiarako sano garrantzitsuak diralako. Aurten, informazio puntu bat be egongo da Merkartean birziklatze eta energia barriztagarrien gaineko informazioa emoteko.

Etorkizunari "itxaropentsu" begiratzen deutso Beitia. "Uste dot gizarte aldetik ekoizle eta konsumitzaileen arteko hartu-emon zuzena eskatuten dala. Momentu honetan prezioen gorakada dala-ta, ikusten da ekoizleek ez dabela igokera horretatik onuratik ateraten. Azoka honek erlazino eta kalidadea sustatuteko eta babes emoteko oso onak dira".

AREATZA

Andra sortzaileen azokea Areatzan izango da

Arratiako andra sortzaileen lana bultzatu eta euren artean sareak sortzeako helburuagaz antolatutau dau Arratiako Udalen Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzuak andra sortzaileen azokea.

Erredakzioa

Urtean-urtean, herri baten egitea da asmoa. Holan, igaz Diman egin zan eta aurten, Areatzak hartu dau azokearen lekukoa. Urri lehenengoaren 24an izango da, goiz partean. Azokeaz gainera, kalejireak eta balkoitik balkoira bertso-saioa be egongo dira egunari jai giroa emoteko.

Goizeko 10:00ak aldean, neska dultzaina jotzaileek kalejireak egingo dabe azokeari hasikera emonez eta 11:00etatik 14:30ak arte erakutsiko dabe euren lana Arratiako andra sortzaileek. Igaz, Diman egin zan azoka hau eta dozena bat erakusmahai inguru egon ziralako dino Batirtze Barrero AUMko Bardintasun Teknikariak. Dana

dala, "asmoa gero eta Arratiako andra gehiago egotea" da, eta aurten gehiago izatea espero dau. Euren lana erakusten dabenak batez be artisauak eta nekazariak diran arren, beste eremu profesionaletakoak be egongo dirala, argazkilariak tartean, dino Barrerok.

Enbeita, Arzallus eta Labaka

Balkoitik balkoira bertso-saioa 13:30ean izango da plazan. Onintza Enbeitak, Maddalen Arzallusek eta Ane Labakak botako dabez bertsoak udaletxeko balkoitik, parean dagoan beste batetik eta Parketxekotik.



ARRATIA

Hilaren 24an errekea garbitzeko deia

Erredakzioa

Errekea eta errekondoa garbitzeko deialdiak urtero egoten dira fetxa desbardineta eta, lekuaren arabera, herritarrek, talde ekologistek edo eskola-umeek egiten dabe behar hori. Aurten, Baso Biziak plataformea erreka garbitzeko egunak bateratuten saiatu da. Holan, Euskal Herriko erreka asko urri lehenengoaren 24an, garbituko dauz jentek; tartean, Arratia erreka. Hausnarketea eta datu bilketea be egin gura dabe plataformakoek, erreken eta inguruko baso eta herrien egoerea aztertzeko.

Arantzazun, Areatzan, Artean, Igorren, Lemoan eta Zeanurin, 10:00etan da hitzordua. Arantza-

zun eta Areatzan plazan batuko da jentea. Artean, talde bi egin gura dabez erreka leku bitan garbitzeko eta plazan eta Basoa defendatzaileen etxean batuko

da jentea erreka garbitzeko. Igorren, errugbi zelaian, eta Lemoan, erromatar zubian Larrabeitirantzako norabidean dira garbiketarako batzeako lekuak.



IGORRE

Andra eta gizonen arteko aukera bardintasunaren gaineko galdetegia eskuragarri dago Igorren



dira: Udaletxean, anbulategian, Kultur etxean edota jubiladue-nean. Horrezaz gainera urri lehenengoaren 28an, 18:00etatik 20:00etara egongo gara Kultur Etxean jentek galdetegia bete dagian" dino Marina Azkonizaga Daiteke Gizarte Aholkularitzako teknikariak.

Diagnostikoa

Etxetara bialduko dan diptiko baten, diagnostikoaren faseak, galdetegia egiteko aukerak eta hurrengo fasean egingo diran eztabaida taldeen gaineko informazioa jasoko da. Kalean QRdun kartelak egongo dira, eskaneau eta galdetegia bete ahal izateko. Galderak, udaleko zerbitzuen erabilpena, zaintzaren erantzukizuna eta bardintasunagazko pertzepzioaren gainekoak dira, besteak beste.

Hurrengo fasean, talde eztabaidak egingo dira. Horretarako egun bi dagoz urri bigarrenaren 19a eta 26a, hain zuzen be. Eztabaidok Kultur Etxean izango dira. Lehenengo egunean kirola, kultura, giza eskubideak eta andra talde edo talde feminista mahaiaik sortzea landuko da. Horretarako, gai horreetan jarduten daben alkarte, talde edota herriko personen parte hartzea eskatzen da. Bigarren saioan, edade edo egoera sozial desbardineta personeren parte hartzea bilatuko da: "guraso, jubiladu, gazte, zaintzaile, andra, genero disidente edota migratutako personena". Helburua, Igorreko beharizanak, arazoak, interes guñeak eta hobekuntza aukerak identifiketea da.

Diagnostikoa abendu inguruan amaitutea espero dabe eta ondoren aurkeztuko deutsee herritarrei.

Galdetegia.

Erredakzioa

Udala eta Mankomunidadeko Bardintasun Zerbitzua, Igorreko Emakume eta Gizonen Bardintasun Diagnostikoa landuten dagoz Daiteke Gizarte Aholkularitzeagaz batera.

Diagnostikoak hainbat fase ditu. Lehenengo fasea Udal lanketea da, bigarrena herritarrentzako galdetegia, ondoren taldeetan eztabaidak, eta azkenik, diagnostikoaren aurkezpena. Daborduko udal lanketeagaz amaituta, aholkularitzakoak udal eta mankomunidadeko beharginakaz alkatu dira udal arloetako informazioa jasoteko. Herrian galde-tegi bat zabalduko dabe oin.

Galdetegiari sarean edo zenbait lekutan eskuz erantzun ahal izango jako. "Sarean erraz bete daiteken galdetegi bat sortu dogu, gitxi gorabehera 10 bat minutu beharko dira beteteko. Igorreko zenbait lekutan be, eskuz beteteko galdetegiak egongo

BEDIA-IGORRE

Bedia-Igorre, hamar kilometro errekontotik

Gorbeia Parke Naturalak antolatuta, Arratia Herririk Herri 38 kilometroko ibilbidea, hiru etapatan egiteko aukerea dago. Lehenengo etapea, Bediatik Igozera doazen ia 10 kilometroak, 28 lagunek egin eben urri lehenengoaren 11n. Bigarren etapea, Dima-Zeanuri izango da, eta hirugarrena, Zeanuri-Ubide. Antolatzaileek garraio publikoa erabiltzea erabiltzeko jarduerak antolatu gura eben; izan be, mendian egiten diran jardueretara joateko ez da egoten garraio publikorik.



dareoz Gorbeia Parke Naturala ezetuz eta ibilbide desbardinak egiten". Bilbo, Zornotza, Orozko, Zeberio eta Arratiako batzuek ezetu ebezan Bediatik Igozerraino doazen oinezkoen bideak.

Etapak urtaroka egiteko asmoa daukie antolatzaileek. Bedia-Igorre udagoienaren ateetan izan da; Dima-Zeanuri, neguan egiteko asmoa dago eta Zeanuri-Ubide

udabarrian. "Zeanuri-Ubide edo Ubide-Zeanuri. Akaso, bigarrena, aldapan behera izan daiten". Jardueretara joaten dan jentearen perfila kontuan izanda hartu eben hiru zatitan egiteko ebatzia. "Distantzia honetan mobiduten gara ondoen. Gure filosofia da bakotxa bere eritmoan, ahalik eta gehien gozatuz eta ahalik eta gitxien sufriduz. Hau ez da mendi marxa bat".

**Erredakzioa**

Arratiako Udalen Mankomunitateak markautu dauka Arratia Herririk Herri ibilbidea. 2019ra arte, Arratiako Ibaieretatik Martxea izenagaz, urri lehenengoaren bigarren hamabostaldian, Europako Mobikortasun astearen harira, AUMk antolatu ebazan hamar urtez Bediatik Zeanurira 20 kilometroko ibilaldiak. Helburu eta ibilbidea antzekoak izan arren, Parketxearen jardueren inguruan sortu zan ibilbide hau eskaintzeko asmoa BEGITU Parketxeko teknikariek azaldutakoaren arabera. "Guk jarduera guztiak egiten doguz Gorbeia Parke Naturalean, baina bai ikusten genduan, adin guztiari begira, hainbeste mendi izan beharrean, herriz herri zerbait egitea polita izango zala. Inoz egin dogu Areatzakoz auzuneetatik eta Arteako auzuneetatik ibilbideak. Eta Arratia Herririk Herri egitea pentsatu genduan". Gainera, topagunera heltzeako garraio publikoa erabiltzeko aukerea emoten eban eta hori zan ibilbidearen beste helburua.

Gorbeia Parke Naturalak antolatutako Arratia Herririk Herri ibilbidearen lehenengo etapea,

Europako Mobikortasun Iraunkorraren astearren hilean antolatuetea ez da kasualitatea izan. Bizkaiko hiru parketxeak sarean egiten dabe lan, Gorbeia, Urkiola eta Armañon, eta, mobikortasun iraunkorraren alde garraio publikoa edota kolektiboa eta oinez egin daitezkean ekintza bana antolatu eben urri lehenengoan: Armañon parke naturalean Kollitza mendira igokerea; Urkiolan, Urkiola-Arrazola zeharkaldia eta Gorbeian, Arratia Herririk Herri Bedia-Igorre ibilaldia.

Parketxeetara heltzeako, gehienetan auto partikularrak erabiltea beste aukerarik ez da izaten eta aspaldi honetan, garraio publikoaren erabilera eta mobikortasun iraunkorrako bat bultzatuz guran dabizela dinok parketxeetakoek. Auto partikularrak gero eta gehiago dira parke naturalen barruan eta honek eragin txarra izaten dau ekosistema zaurgarrien konserbazioan. Hori dala-ta, mobikortasuna beste modu baten kudeatutako erronea planteetan jakiela dinok.

Arratia Herririk Herri

Bertara heltzeako auto partikularra behar ez izateaz gainera, Arra-

tian herri batetik bestera oinez joateko bideak be erakusten ditu ibilbideak. Izan be, herriak lotuta dagoz erreka ondotik auzuneetatik pasetan diran antxinako bideakaz, oinez joateko aproposak diranak. "Bidea sano polita da, auzoz auzo doa, eta errepidetik ez da ikusten".

Lehenengo etapea, Bedia-Igorre, egin eben gehienak Bilbo Handitik etorritakoak ziran, normalean Parketxeak antolatutako jardueretan parte hartzean dabenak. "Parkeetako lagunak dira. Ibilbide guztietara joaten dira: labur edo luze eta lagun talde bat sortu dabe. Urte asko

Bertara heltzeako auto partikularra behar ez izateaz gainera, Arratian herri batetik bestera oinez joateko bideak be erakusten ditu ibilbideak



GORBEIA SUZIEN

Skymasters-eko finala izango da Gorbeia Suzieneko lasterketako bat

Urri bigarrenaren 8an, Zeanurin jokatu da Skymasters-eko finala. Bertan neurtuko dira munduan zehar izandako 13 probetan sailkatu diranak. Horrezaz gainera, Gorbeia Suzieneko beste bi lasterketa egongo dira zapatuan; Gorbeia Suzien Skyrace 31 kilometroko lasterketa eta 21 kilometrokoa, Euskal Herriko Gazteen Txapelketa be izango dana.



Erredakzinoa

Domekan, umeen lasterketa izango da. Musikea, merkadua eta janari postuak be egongo dira astegoiaren osoan herria jai giroa ipinten.

Gorbeia Suzieneko jarduerak aurreko egunean hasiko dira, Igorren, Ana Zamoranoren bergaldiagaz. Igorreko Kultur Etxean izango da 19:00etan. Zamorano munduan zehar ibiltzen da bizikletaz eta bidaia horreetan bizi izandako gorabeherak kontatuko ditu.

Barikuan, lasterketearen gaineko berbaldi teknikoak egongo da plazan, 19:00etan, Gorbeia Suzien lasterketako partaideei lasterketen gaineko informazioa emateko.

Zapatua, hilak 8, izango da egun handia. Orduan jokatu dira lasterketa nagusiak: Gorbeia Suzien Skymasters lasterketa, Gorbeia Suzien Skyrace 31 kilometroko lasterketa eta Gorbeia Suzien 21 kilometroko lasterketa. Baita Euskal Herriko Gazteen Txapelketa be. Sari banaketak, 14:00etan eta 20:00etan izango dira; 14:00etan orokorra eta 20:00etan, Munduko Kopakoa (Skymasters).

Lasterketaz gainera, arrastian, The Broken Brothers Brass Band taldeak New Orleanseko kaleko soinuak ekarriko ditu Zeanurira, "estilo propio, errebindikatzaile, festari, ganberro eta umorez betetako bategaz". Taldea 2006an sortu zuen Iruñean eta 5 disko ditu kalean. Gauean, musikea DJ batek ipiniko dau.

Domeka umeen eguna izango da. Euren lasterketa 12:00etan izango da eta gero umeentzako jarduerak egongo dira. Astegoiaren osoan, merkadua eta jatekoa erosteko postuak egongo dira.

Lasterketak

Aurten Skyrace World Series-

ek, 14 lasterketa ditu, maila bitako 13 lasterketa eta Zeanuriko finala, Skymasters izenekoa. Lehenengo mailako (Tier One) hamar lasterketa dagoz eta bigarren mailako (Tier Two) 3 lasterketa. Lehenengo mailako lasterketek puntuazio handiagoa emoten dabe. Tier Oneko 20 onenek puntuak izango dabez, eta 10 lasterkari sailkatuko dira Zeanuriko finalerako. Bigarren mailako lasterketetan, Tier Two, 5 lasterkari sailkatuko dira. Zeanurira sailkatzeko lasterketok, 3 kontinente eta 11 herrialdetan izan dira. Munduko Kopa honetako lehenengo lasterketa Madeiran izan zuen, maiatzaren 28an, eta Japonian, Austrian eta Kanadan be jokatu dira lasterketak, batzuk aitatzearen. Skymasters izango da abiatuko dan lehenengo lasterketa, 09:00etan.

Ordu laurden beranduago abiatuko da Gorbeia Suzien Skyrace, 31 kilometro eta 2.400 metroko desnibel positiboduna. Zeanuri eta Gorbeia inguru ederrak munduan ezagun egiteko helburuagaz sortu zuen Gorbeia Suzien, eta Gorbeia parkeko bazter ederrenetatik dauka ibilbidea. Lasterketa gogorra da: harriguneak, zelaiak, igokera eta jeitsiera aldapatsuak, abiadura handian joateko tarreak, eremu teknikoak... danetik dauka. Bertan mendi lasterkari ezagunek hartzen dabe parte eta "egun horretan, mendiko lasterketak maite dabezen guztiek gure herrira eta gure bailarara begira egoteko aukera emoten dau; Zeanuri munduko mapan ipinteko" azaldu deusie BEGITUri antolakuntzatik.

21 kilometroko lasterketan parte hartzen dabenak 10:30ean urtergo dira eta Euskal Herriko Kadete, Gazte eta Junior txapelak be jokatu dira. Gorbeia Suzien 21K-k eta Euskal Herriko Junior kategoriako Txapelketako ibilbideek 21 km luze eta 1300 m desnibel positiboa izango dabe. Gazte Mailako Txapelketako ibilbidea, 18 km luze eta 1000 m desnibel positiboduna San Justoko ermitatik hasiko da. Kadete kategoriako Txapelketako ibilbideak barriz, 15 km luze eta 600 m desnibel positiboa izango dau eta Andramari ortutik urtergo da.

Gorbeia Suzieneko lasterketa nagusiak streaming bidez ikusteko aukera egongo da. Igaz egin zuen lehenengo aldiz eta aurten be gauza bera egiteko asmoa agertu dau

antolakuntzeak Zeanurira etortetik ez daukienei lasterketa zuzenean ikusteko aukera emoteko.

Egitaraua

Urri bigarrenak 6, eguna
19:00etan, Ana Zamoranoren berbaldia Igorreko Kultur Etxean.

Urri bigarrenak 7, barikua
19:00etan, lasterketearen gaineko

berbaldi teknikoak Zeanuriko plazan.

Urri bigarrenak 8, zapatua
09:00etan, Gorbeia Suzien Skymasters lasterketa.

09:15ean, Gorbeia Suzien Skyrace lasterketa.

10:30ean, Gorbeia Suzien 21K eta Euskal Herriko Gazteen Txapelketa.

14:00etan, sari banaketak.

Arrastian zehar musika emonaldia:

The Broken Brothers Brass Band.
20:00etan, Munduko Kopako sari banaketak.
21:00etan, Dja eta jaiak.

Urri bigarrenak 9, domeka
12:00etan, umeen lasterketa eta umeentzako ekintzak. Astegoiaren osoan zehar, merkadua eta jatekoa saltzeko postuak egongo dira.

IRAILAK 17

MERKARTEA 2022

EGITARAU

- 10:00-15:00: **MERKARTEA AZOKA** (Umeentzako puzgarriak egongo dira)
- 12:00: "Leon Bilbao eta Maurizia Aldaiturriaga"ren eskulturaren 25. urteurreneko ekitaldia (Udaletxearen ondoan)
- 13:00: Aizkolariak, **Aitzol Atutxa** (Bizkaiko Txapelduna) eta **Julen Larrea** (Bizkaiko Txapeldun ordea), Astui Bekoan.
- 21:00: **Aukeran Dantza Konpainiaren "Maurizia" ikuskizuna.**
- 23:30: Erromerie: **"Altxa Porru" Taldea**

Gorbeialde **Gorbeia** **Bizkaia** **bbk** **Arteako Udala**

MENDIA

Lau urteren ostean, Zeberio Harana mendi martxea egingo da barrero

Urri lehenengoaren 17an izango da Zeberio Harana mendi martxea. Ibilbide bi dagoz; luzea, Euskal Herriko Iraupen Luzeko Ibilaldien Zirkuiturako puntuagarria da.

Erredakzioa

Sano ibilbide gogorra da: 43 kilometro daukaz, 2.400 metroko desnibela eta gehienez 11 ordutan egin behar da. Partaideak Zeberioko plazatik urtengo dira goizeko 07:00retan.

Aurten, lehenengoz, jente gehiagok parte hartu ahal izateko, beste martxa bat be antolatu dau Austarri Mendi Klubak, "herrikoia", 24 kilometro eta 1.300 metroko desnibelduna. Urteke-rea 09:00etan izango da. Martxa egunean be emon daiteke izena; 06:00etatik 06:30era ibilbide luzea egin gura dabenek eta 08:00etatik 08:30era laburra egin gura dabenek.

Hirugarren edizioa da aurten- goa. 2016an izan zan lehenengoa eta urte birik behin egitea ebatzi eben Austarri Mendi Klubekoek. "Lehenago egiten zan beste mar- txata bat, Zeberioko mugak. Hori urtero egiten zan. Baina ailegau zan momentu bat oso jente gitxik parte hartzean ebala, eta orduan ebatzi zan hau egitea ea jente gehiago etorten zan". Izan be, Zeberioko mugako martxeak, 50 kilometro inguru eukazan. Ibilaldi Luzeko Zirkuituko martxek 40 ki- lometro izan behar dabe gitxienez eta zirkuitoan egotea, beste herri batzuetako ibilaldi luzeko zaleak erakarteko modu bat da. "Herriko batzuek be hartzean dabe parte, baina gehiena kanpoko jentea izaten da, holango martxak egite- ko entrenetan dana" dinoe Aus- tarri Mendi Klubekoek.

Bigarren edizioa 2018an izan zan. Hirugarrena, 2020ko maia- tzean egitekoak ziran, baina CO- VID-19agaitiko alarma egoera indarrean egoan orduan eta jen- te asko batzean ebezan ekintzak galazota egozan. Bertan behera geratu zan.

Ibilbideak

Ibilbideetako zati bat Zeberioko mugetatik doa. Martxa biek, Upotik aurrera, ibilbide bera daukie. Upora joan aurretik luzea egiten dabenek plazatik urten eta Piku Bikotx (616 m), Garaigorta (662 m), Aibelabe (638 m), Arrugaeta (669 m), Untzuetta (770 m) eta Artandatik (550 m) pasauko dira. Ibilbide laburra egiten dabenek Upora ailegetako, Mintegitik (272 m) pasauko dira. Upo mendiaren ostean, Tontorran- di (522 m), Mandoia (638 m) eta Argiñaoko Atxa (524 m) mendie- tatik pasauko dira ibiltariak plazan helmugara ailegau baino lehen.

Lau horniketa puntu dagoz; hiru bidean eta laugarrena plazan, amaitukeran. Diplomea eta opari bana be jasoko dabe martxalari- ek.

70 laguntzaile

Martxearen antolakuntzeak, egunean bertan, 70 persona in- gururen lana behar izaten dau: leku desbardineta egoteko, 4x4 autoakaz ibilteko, kotroletan ego- teko, horniketa puntuetako ma- haietan... eta bazkide eta herriko jentearen laguntzeagaz ateraten dabe aurrera.

Jubiladuen alkarteak parilladea egingo dau plazan.

MENDIA

Iturbe laugarrena izan da Munduko Txapelketako Kilometro Bertikalean

Erredakzioa

Skyrunning Mundu Txapelketea jokatu zan Italian eta lehenengo proba izan zan Kilometro Bertikala, hilaren 9an. Bertan, Onditz Iturbe igorretarrak hartu eban parte eta laugarren ailegau zan tontorrera, 44 minutu eta 14 segundo galapan egin ostean.

San Domenico di Varzo herrian izan zan lasterke- tea eta 3,8 kilometroko bidean 1.063 metro igon behar izan ebezan korrikalari- ek, ia 2.500 metroko altueraraino heltzeako. Laugarren eginda, Espai- niako Selekzinoko arinena izan zan eta irabazleak, Maude Mathys suitzarrak, hiru minutu eta erdiko aldea atera eutsan; honek 40 minutu eta 50 segun- dotan egin eban proba.

Kilometro Bertikalean lortutakoagaz pozik agertu da, baina hilaren 13an be korridu eban beste laster- keta bat, "desastre" izan da bere balorazioa. Izan be, Veiako Skyracea jokatu eban baina tripetako mina zala- ta ezin izan eban lehenengo postuetan lehiatu eta damututa agertu da, ez erretireteagaitik. Halanda be, sailkapen orokorrean 22. postua lortu eban.

HERRI KIROLAK

Arabako Lasto Jasotze Txapelketako txapeldunordea izan da Ruth Linaza

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 3an jokatu zan Eltziegion Arabako Lasto Jasotze Txapelketea. Ruth Linaza lemoztarrak bigarren egin eban 25 jasoaldi egin- da. Txapela, Euskal Herriko txapel- duna dan Garbiñe Lopez de Ural- dek jantzi eban, 29 jasoaldi eginda.

Lemoztarra sano pozik agertu zan Eltziegion egindako lanagaz; izan be, bere marka personala apurtu eban, 22 jasoalditik 25era pasauz eta 25era ailegeta zan bere burua- ri ipinitako erronka. Txapelduna laguna eta taldekidea da Badaiotz sokatira taldean, 30 jasoaldiren



bueltan ibiltan da, eta lemoztarrak "gatx ikusten dau ha harrapetea". Urtean-urtean, jasoaldi bat gehiago egitea da bere helburua eta dato- rren urtean 26 egiten saiatuko dala azaldu deutso BEGITURI.

Andrazkoen lasto jasotzeak historia laburra

Andrazkoen lehen Lasto Jasotze Txapelketea, Arabakoa izan zan eta 2019an jokatu zan; Euskal Herriko lehenengoa 2020an.

Historia laburra daukie kirol honetako andrazkoen txapelketek. Izan be, oin dala sei bat urte Ruth Linaza eta Garbiñe Lopez de Uralde lasto altxetan hasi ziran, Euskal Herriko Federazioan onartuta be ez egoan txapelketarik. Linazak azaldutakoaren arabera, Jon Loiolak eta Jose Martin Bustinza "Tubi" k ahalegin handia egin eben Euskal Herriko andrazkoen lehenengo txapelketea Federazioak onartzeko.

Gaur egun, Euskal Herrian, Ruth Linaza eta Garbiñe Lopez de Ural- de baino ez dabiz kirol honetan konpetiduten eta herri kiroletan dabizan beste andrak animau gura dauz lasto altxatzeari ekiteko.

MENDIA

Pozik agertu dira Ubidestroï Trailen lehen edizinoagaz

Erredakzioa

Urri lehenengoaren 10ean jokatu zan Ubideko men- di lasterketea lehenengoz eta txapelak Hassan Ait- chaouk eta Oihane Azkorbebeitiak jantzi ebezan.

27 kilometroko bidea eta 1.700 metroko desnibela gaudituz behar izan ebezan parte hartu eben korrika- lari- ek. Lasterketea 126 kirolarik amaitu eben denpo- raz eta honeen artean hainbat arratiar be egon ziran, lehenengo hirurak zeanuriztarrak izan ziran: Unai In- txaurraga, Jon Aingeru Artetxe eta Jon Intxaurbe.

Hassan Aitchaou billabonarra; ordu bi, hogeta sei minutu eta hiru segundotan heldu zan helmugara. Ostetik izan ebezan Jokin Lizeaga eta Hodei Sama- niego. Andrazkoen artean barriz, azkarrena Oihane Azkorbebeitia abadiñoztarra izan zan; ordu bi, berro- geta hamazazpi minutu eta hogeta sei segundoko denporeagaz. Andrazkoen podiuma, Uxoia Irigoien eta Andikona Albizurik osotu eben.

Antolatzaileak pozik agertu dira lehen edizino honegaz eta BEGITURI aurreratu deusie hurrengo urtean Ubidestroï Trail antolatzeko intenzioa dagoala. "Oso-oso ondo" da egin dabenek balorazioa eta antolatzaileen esanetan, korrikalari- ek be disfrutatu eben: "Esan deuskue, lehen edizioa izateko primeran urten dala". Gainera, herriko zein kanpoko bolun- tarioren lana goraitu dabe eta heritarren erantzuna be bai.

MENDIA

Hamasei ermita ingurutik pasauko da Dimako ermiten ibilbidea

Erredakzioa

Oinez zein mendiko bizikleteagaz egin ahal izango da Dimako ermi- tetatik pasetan dan ibilbidea. Urri lehenengoaren 24an, oinezkoak 07:00retan urtengo dira Dimako frontoi txikitik eta bizikletan doazenak, 09:00etan. Ibilbideak 32 kilometro ditu eta 16 ermiten ingurutik pase- tan da. Ibilbidea markata dagoanez, osorik egin beharrean, zati bat be egin daiteke, norberaren neurrikoa.



PELOTEA

Binakako Plazaz Plaza Torneoko finalerdietara sailkatu da Ruiz de Infante

Erredakzioa

Ainhoa Ruiz de Infante, Txumulugetako pelotaria, Ane Mendiburugaz batera, Ados pelota alkarteak antolatutako Binakako Plazaz Plaza bigarren Txapelketako finalerdietara sailkatu da, lehenengo aurrelari lez, urri lehenengoaren 3an, Tirapun (Nafarroa) Maddi Berrocal eta Uxue Oseseri 22-9 irabazi ostean. Finalaurrekoa, Maite Ruiz de Larramendi Mujikagaz jokatzekoa da. Finalerdiak Oñatin eta Dulantzin jokatu dira hilaren 16 eta 18an eta finala, Etxaurin hilaren 24an.

Txapelketa honetan ez dago bikote finkorik. Pelotari bakotzak ligaxkako lau partidu jokatu behar ditu eta puntuazioa indibiduala da. Talde bakotxetik puntu gehien dituen lehen bi aurrelari eta atze-



Ainhoa Ruiz de Infante.

lariak sailkatuten dira finalerdietara. Hamasei pelotari dagoz parte hartzean, multzo bitan bananduta. Multzo bakotxean lau aurrelari eta lau atzelari dagoz.

PELOTEA

San Antolin torneoko txapelkunordea izan da Ainhoa Romero

Urri lehenengoaren 3an, Lekeitioko Santi Brouard frontoian jokatu zan Leire Galeano eta pelotari lemoaztarraren artean San Antolin Tornea, Emakume Master Cup-ek lehenengoz antolatuta.

Erredakzioa

Lau t'erdian egon ziran aurrez aurre biak eta bardinduta hasi baziran be, 18-11 irabazi eban Galeanok.

Partidu bakarreko txapelketea izan zan San Antolinekoa eta Romerok izan ebazan aukerak, batez be hasikeran. Hamarnako bardinketara arte gora eta behera ibili zan markagailua, baina Romerok

BEGITURI azaldu deusanez, "kantsetan hasi eta, berak tantu batzuk sartzean apurtu zan partidua". Holan, Galeanok aurea hartu eban 18 tantuetara arte eta lemoaztarra hamaikagaz geratu zan.

Beste alde batetik, Romerok aurreratu dau buruan daukazan hurrengo txapelketak Bizkaikoa eta Hiru Hiriburuak dirala baina ez dago baieztata, izan be, honeek antolatzeko lanetan dabiz oindino.



PELOTEA

Amaia Aldai dimoztarrak Antiguoko Txapelketea irabazi dau

Amaia Aldaik Antiguoko Txapelketearen 74. edizinoko txapela jantzi eban urri lehenengoaren 3an, Leire Garairi 18-4 irabazi ostean. 2021-2022ko denporaldian dimoztarrak jantzi dauan zazpigarren txapela izan da hau.



Erredakzioa

Partidua erraz irabazi eban Aldaik; argi euki eban denpora guztian egin beharrekoa eta partidu osoan

berak agindu eban. Garaik ez eban apenas aukerarik euki bere joko egiteko, defentsan ibili behar izan zan beti eta. "Partidu hasikeran nahiko urduri sartu nintzan, final

guztietan lez, tensino puntu batzuz, baina partidua aurrera joan ahala, gustura sentiduten hasi nintzan eta holan nire joko mailarik onena emona ahal izan neban" azaldu deutso BEGITURI Aldaik.

Antiguoko Txapelketa jokatu dauan hirugarren aldia izan da hau.

San Mateoko finalerdia

Barrero be aurrez aurre egongo dira Aldai eta Garai, hilaren 17an, Errioxako Santo Domingo de la Calzadan, San Mateoko Txapelketako finalaurrekoan. Amaia Aldaik Itxaso Erasun izango dau bikotekide, eta Leire Garaik, Nora Mendizabal. Partidua "gatxa eta gogorra" izango dala uste dau arratiarrak, baina euren maila emon ezkerro, irabazi daitekena finala jokatu ahal izateko.

MENDIA

Urteetan erabili bako antxinako bideak errekupe rau ditu Areatzako Mendi Martxeak

Hilaren 17an izango da Areatzako Mendi Martxea. Ibilbide bi dagoz aukeran, 19 eta 26 kilometrokoak, Mendiganan batuko diranak. Parte hartzeako, izena alde zuretik emon daiteke, urri lehenengoaren 15era arte, 8 euro ordainduta, edo egunean bertan 07:15etik aurrera, 12 euroko prezioan.

Erredakzioa

Martxa laburra egiten dabenak Mendiganara eroateko antolakuntzak autobusa ipiniko dau.

Partaide guztiek kamiseteta jasoko dabe, ibilbidean zehar horniketa puntu bi egongo dira eta martxea amaitutakoan, Areatzako plazan parrilladea egongo da.

Martxea Areatzako inguruak, toponimia eta antxinako bideak ezetuten emoteko sortu zan.

Antxinako hiru bide barri

Martxa luzea Areatzako plazan hasi eta Upoko tontorretik pasata, Mendiganara helduko da. Han batuko dira martxa laburreko ibil-

tariakaz eta bertan egongo da lehenengo horniketa puntua. Gero Larreder, Atxulo eta Potxoletatik joango dira mendizaleak, Arraban

horniketa puntuan geratu eta barrero Areatzara bueltetako.

Bederatzigarren edizino honetako ibilbideak baditu zati barriak. "Aurten hiru bide barri zabaldu doguz, antxinako bideak, urteetan erabili barik egon diranak. Uste dogu Areatzako inguruak hobeto ezetuteko balioko dabela, seguru gagoz herriko jentek ez dauzala ezetuten eta" azaldu deutso BEGITURI Xabier Iturriaga antolakuntzakoak.

Toponimiari behar dauan garrantzia emoteko, 50 kartel baino gehiago prestatu dabez lekuen izenak marketako. Horretarako, Iñigo Iturbe adituaren laguntzea izan dabe.



MUSIKEA

Jonu kantautorea Bedian izango da hilaren 30ean

Erredakzioa

Leihotik begira bere azken diskoko kanta joko ditu Bediako plazan urri lehenengoaren 30ean, 19:00etatik aurrera. Jonu, Koiu taldeko kidea be bada, baina sano musika desbardina egiten dau taldean eta bakarka. *Leihotik begira* diskoa 2021ean kaleratu eban, itxialdiak sortutako hausnarketen eta bizipenen harira.

Kontzertua Bediako Musika Airean ekimenaren barruan dago. Pintxo-pote eguna dala-ta, familia eta gazte giroa espero dabe barikuan plazan. Musika Airean urtero antolatzen da Bedian, urri lehenengoan, antolatzaileek azaldu dabenez, "oporrak luzatzeko". Ekimena herritarrek proposatu eban, oin dala lau urte, "pintxo-potea eta denpora ona aprobetxetako". Holan, hurreko kantautore euskaldunak gonbidatzen dabez plazan kontzertua emoteko.



Jonu kantautorea.

Argazkia: Binke.

IPUIN TAILERRA

Ipuin bat asmatuteko tailerra egongo da Diman hilaren 16an



Erredakzioa

Urri lehenengoaren 16an, 17:30ean, ipuin bat asmatuteko umeentzako idazketa tailerra egongo da Abaroan. Miru Sorgina ipuin kontalariak gidatuko dau eta ordubeteko iraupena izango dau. Bertan parte hartzeako izena emon behar da alde zurretik kultura.dima@bizkaia.org helbidean edo 685 759 997 telefonoan.

Saioan, jolas dinamiko batzuen bitartez, hasikeratik amaieraraino ipuin bat sortuko dabe danen artean tailerlean parte hartzean daben umeek. Tailerraren helburua, irudimena martxan ipintea eta partaideek "barruan daukien ahalmena", bultzatzea da.

IKASTAROAK

Zabalik dago Artea, Areatza, Lemoa eta Zeberioiko ikastaroetan izen-emotea

Erredakzioa

Aurreko urteetan jente gehien euki daben ikastaro eta tailerrez gainera, udal batzuek ikastaro barriak be eskaini ditue eta horreen artean, sukaldaritza osasuntsua indarra hartzean doa. Gorputza sasoiari mantentzeko gimnasia, jantzak, yoga, pilates eta antzekoek be arrakasta handia izaten jarraituten dabe Arratian.

Artean, hilaren 21era arte emon daiteke izena ikastaro desbardinatan. *Eskulanak, Arte aplikatuak, 3. adineko gimnasia, Zumba, Pilates, Entrenamendu funtzionala, Txikung, Euskal dantzak* nagusientzat, *Dantza modernoa* umeentzat eta Irakurleen Txokoak osotuten dabe eskaintzea. Ikastaro guztiak urri bigarrenaren hasi eta bagilean amaituko dira eta euren prezioa 50 euro eta 150 euro bitartean dago, Irakurleen Txokoa izan ezik, hau debalde da-ta. Ikasturte honetan Xabier Mendiguren idazle oparoak gidatuko dau Arteko Irakurleen Txokoa.

Areatzan barriz, izena hilaren 23ra arte emon daiteke udal-txean goizez, eta astelehenean 15:30etik 17:30era be bai. Guztira, hamaika ikastarok osotuten dabe eskaintzea: *Eskulanak, Crossfit, Boxeo, Spinning, Pilates,*

Mantenimendu gimnasia, Puntua eta kakorratza, Ehoziri lanak, Joskintza, Luzaketak eta Yoga. Danak izango dira hamasei urtetik gorakoentzako eta gitxienez, hamar persona egon beharko dira talde bakoitza osotuteko. *Luzaketak eta Yogaren* kasuan, prezioa 80 eurokoa da, astean ordu eta erdi emongo dira klaseak. Beste danak, ordu bikoak izango dira eta prezioa 110 eurokoa. Erdia izena emoterakoan ordaindu behar da eta hurrengo erdia, abenduan.

Lemoako Udalak ostera, 15 ikastaro antolatu ditu eta elikadura osasuntsuaren aldeko apustua egiten dau, edade desbardinatukoentzako ikastaroak eskainiz. Holan, 6 eta 9 urte bitarteko umeentzako *Elikadura osasuntsuarekin familiarizatzen* ikastaroa dago, 12 eta 16 urte bitartekoentzako *Elikadura osasuntsura lehen pausoak*, 18 urtetik gorakoentzako *Elikadura kontzientea* eta 60 urtetik gorakoentzako *Elikadura gure osasunean* izenpeko ikastaroak eskaintzen dira. Lemoako ikastaro batzuek ikasturte osoa hartzean dabe baina beste batzuek lehenengo zatia edo bigarrena, eta horren arabera da matrikula epea. Hilaren 14ra arte izan da *Ginekologia naturala eta ahalduz*

sexuala, Gizonak eta parekidetasuna, Death Cafe, Idazketa sortzailea, Umeen irakurle taldea, Elikadura osasuntsuarekin familiarizatzen, Elikadura gure osasunean, Informatika ikastaroa eta Eskulan ikastaroan izena emoteko epea. Hilaren 30era arte emon daiteke izena Udalaren webgunean, *Euskara eskolak* edo *Euskara eskolak merkatarientzat* ikastaroak jasoteko. *Elikadura kontzienterako* matrikulea abenduaren 5etik 16ra egin behar da eta zezeilaren 6tik 17ra, *Bizikletan ibiltzen ikasi, Skate* eta *Elikadura osasuntsuaren lehen pausoak* ikastaroak egiteko.

Beste alde batetik, Zeberion *Muskulazio, Heziketa fisiko eta Mantentze gimnasia* saioak emongo ditue eskola zaharrenean. Lehen saioa urri bigarrenaren 4an izango da eta martitzen zein eguen arrastietan jarraituko dabe, eskola zaharrenean. Izena, udaletxean emon behar da eta epea urri lehenengoaren 24an amaituko da. Saioak txandaka egingo dira martitzen eta eguen gutzietan. Holan, 17:00-17:45 bitartean muskulazioa landuko da, 18:00-18:45 bitartean heziketa fisikoa, 19:00-19:45 bitartean muskulazioaren bigarren txandea eta amaitzeko, 20:00etatik 20:45era arte mantentze gimnasia.

IKUSKIZUNAK

Umeentzako txotxongiloak eta nagusientzako ipuin kontaketea egongo dira Kotxepin Kultur Etxean

Urri lehenengoaren 17an, 18:00etan, izango da *Erreka Mari* txotxongilo antzerkia eta *Dorleta Kortazarren 80 amandre* ipuin kontaketea hilaren 28an, 18:30ean.

Erredakzioa

Hiru eta zortzi urte bitarteko umeentzako da Rosa Mari Martinezek eskainiko dauan *Erreka Mari* txotxongilo antzerkia. Lanak, errekek garbi mantentzeko garrantziak egiten dau berba. "Posible ete da Euskal Herrian oindino laminak bizi izatea? Nekez. Hainbeste zikinkeria, inbidia eta marmarrekaz ezkutatu joan ziran laminak. Baina ez larritu. Bat geratzen jaku eta bere istorioa kontauko deusugu" dinoe sinopsian. Umerez eta samurta-

sunez kontetan da *Erreka Mari* eta Martinek herriko biztanleen aldetik jasan behar dituen arazo eta eragozpenak.

Nagusientzako ipuin kontaketea

Dorleta Kortazar ipuin kontalariak *80 amandre* lana dakar Lemoako Kotxepin Kultur Etxera. "80 amandre behar ei dira antzinako andrak egungoakaz lotzeako, hori inoan behintzat Jorge Oteizak; 80 amandre besterik ez. 80 ziran; 20 izan eitekezan; 4 dira. Nik 4 amandre nahikoa izan

dodaz munduan nire txokoa topetako, 4 amandre besterik ez, ipuin bihurtu eta saio honetan alkartu dodazanak". Amandre, amama, amona, amatxi edo amumen istorioak kontetan ditu Kortazarrek saioan.



DIMETAL

Metal jaiak hartuko dau barrero Dimako plazea

Soziedad Alkoholika, Leize, Elbereth eta Herra taldeek osotuten dabe aurtengo kartela. Aurrekoan, 2019an, 20tik gora izan ziran. Formatu txikiagaz bueltatu da Dimetal Fest, baina hilaren 24an, arrastiko 18:00etatik aurrera eta gaueko ordu txikiak arte, metalzaleei burua astindu eta musikeagaz gozatuteko aukerea emongo deutse.

Urri lehenengoaren atzen astegienean izaten da Dimetal Fest eta daborduko metalzaleen egutegian dago beste jaialdi handiago batzuekatz batera. Eta Dimetal Fest antolatuten dauan Dimetaleroak alkartekoek, 30 urte barru be, holan izatea espero dabe.

Erredakzinoa

S.A., Leize, Elbereth eta Herra taldeek joko dabe eta ostein,

Dani Alvarez, Dj Jarros egongo da metal musikariek onena eskaintzen. Erakargarria da kartela.



Ruben Socorro eta Itsaso Petralanda.

Itsaso Petralanda: Bai, Soziedad Alkoholika kartelburuak 23:30ak aldera joko dau. Ibilbide luzea izan arren, 30 urtetik gorakoa, taldea bere momenturik onenean dago. Beteranoa bada S.A., oindino beteranoagoa da Leize. Taldeak berrogei urte daroaz oholta gainean eta aitzindarietakoa dala esango neuke. Hogei urte inguru daroaz Gipuzkoako Elbereth taldeak, industria metalurgikoko eremukoak. Euren musikea gordina da, eta zuzenekoan zapalgailu baten modukoak dira. Pentsetan dot talde honek ez daukala mezezi dauan errekonozimentua, daukan kalidadeagaitik askoz gorago egon beharko litzateke eta. Herra talde arabarra barriz, barria da. Oin dala hiru edo lau urte sortu zan eta metal moderno, melodikoa egiten dau. Daborduko badauka proiektzioa estatu mailan eta Dimetalaren hurrengo astegienean Murtzian egongo da.

Ruben Socorro: Taldeen ostean, Dj Jarros, hau da, Dani Alvarez egongo da. Hasikerahasiketarik egon da Dani Alvarez kazetaria Dimetal Fest-en, kale egin barik, Dj lanetan, mahai-inguruak gidatzen eta abar.

Aurreko edizioan lau eszenaleku eta 20 taldetik gora egon ziran. Oin formatu txikira pasau zarie. Zergaitik?

Ruben: Etapak dagoz. Alkartean mometu konplikauak bizi izan doguz eta debaldeko formatura itzultzea balorau dogu. 2019an, kontzertu batzuk ordaindu behar izan ziran. Gainera, tamainu horretako jaialdi bat antolatzeko jente pilo behar da eta gaur egun nahiko gaxa da hainbeste jentek hainbesteko ardurak hartzea. Eta dirutzea da.

Itsaso: Beste errazoi bat formatu txikira itzultzeko, debaldeko

jaialdia eskaini gura dogula da. Konziente gara dagoan krisiagaz jenteak erosteko ahalmena galdu daua, eta ez dogu gura inor jaialdira etorri barik geratzea, esate baterako, lan barik geratu dalako eta ezin ditualako 30 euro pagau. Eta aurreko urteetan hartutako tamainuan, ezin zan jaialdia sarrera kobrau barik egin. Formatu txikia atzerapausu bat da, bai, baina atzerapausu hau ondo jatorru alkartekoek eta gainera, debaldeko jaialdia eskaintzea ahalbidetzen dau.

Dana dala, jaialdira datozenei gauza bat eskatu gurako neuskie: ez ekarteko edariak, jaialdiko barretan erosteko edatekoa, laguntza hori behar dogu-ta aurrera egin ahal izateko.

Atzerapausu honek, pandemiaren ostean, geu eta egingakoa berrasmatzeko balio deusku.

Ruben: Plazara itzuliko gara, sortu ginan lekura. Askotan pentsetan da egitura handiak eginda eta talde asko ekarrira jente gehiago etorriko dala, baina nik uste, aurtengo kartela txikia izan arren, aurreko urteetan beste jente etorriko dala.

Ea holan dan! Pandemiaren ostean, inguruko herri txikitako metal jaialdian sano jente gitxi egon da-ta.

Ruben: Bai eta triste da. Errazoi desbardinakaitik izan daiteke: beste jaialdi handiagoko egunetan izan dalako, marketin handigoa behar ebelako... Diru kontuak be eragina izaten dabe.

Dimetal Fest-en aurtengo ez dago mahai-ingururik, jolasik edo bazkaririk. Hurrengo urteetan egiteko asmorik badaukazue?

Itsaso: Bai. Aurtengo, arazoak izan doguz alkartean eta ados ipini orduko berandu zan. Kontratazioak be arrapaladan egin behar

izan doguz. Jente gitxiago izan gara aurtengo eta jakin egin behar da zer emon ahal dozun eta zer kontrolau leikezun.

Ruben: 2019koa antolatuteko 100 persona inguru behar izan ziran, aurtengorako 30-35 inguru. Egia da arrapaladan ibili gara baina data mantendutea zan inportanteena.

Zergaitik zan inportanteena data mantendutea?

Ruben: Jenteak urri lehenengo atzen astegienean gorritz markata daukalako. Urte asko daroaguz fetxa horregaz eta badakie orduan izaten dala Dimetal Fest.

Itsaso: Danok dakigu Wacken-ko jaialdia abuztuko lehenengo astegienean izaten dala. Dataz aldatzen diran jaialdiek ez dabe askorik irauten. Jakinda noz izaten dan jaialdia, antolatu ahal dozuz oporrak edo joateko modua. Lugoko Resurrection Fest edo Villenako Leyendas del Rock jaialdiak eguzten baten hasten dira eta joan ahal izateko, jakin behar dozu noz izaten dan.

Wacken-ko jaialdiak 30 urte daroaz abuztuko lehenengo astegienean izaten. Egunen baten, Dimetal Festek 30 urte eroango dauz urri lehenengoko atzen astegienean izaten. Horrek sinisgarritasuna emoten dau.

Ruben: Ez dogu ezer baztertzen, eta akaso hemendik urte batzuetara itzuliko gara formatu handira, baina txikiak, 4 edo 5 taldekoak, aukera handiak emoten ditu. Aurtengo, Soziedad Alkoholika egongo da kartelburu eta datorren urtean nazioarteko talde bat izatea be ez dogu baztertzen. Ikusiko dogu zelan urtetan dan aurtengoa eta pentsetan dogu datorren urtean zer egin. Seguru dana ondo urteengo dala.

KOMIKIA

Kailo Ren



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

HELDUENTZAKO ZERAMIKA IKASTAROA

Areatzan astelehenetik eguenera egun bat aukeran. 11:00etatik 12:30era. 120 euro hiruhilekoa (materiala barne, labakadea ez). Interesdunek deitu 615 731 182 telefonora (Saioa Larrea).

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

EDADEKO PERSONEA JAGON

Zeanuriko baserri baten, astegoienetan, zapatu goizetik domeka arrastira, edadeko personeagaz egoteko laguna behar da. Gidabaimena eukitea garrantzitsua da. Interesdunek deitu: 652 716 349.

LANA

GARBIKETA LANAK

Igorrerako eta inguruetarako etxeko garbiketarako egiteko zerbitzua eskaintzen dot. Interesdunek deitu 651 708 595 telefonora.

LAN-BOLTSEA

Igorreko Guraso Elkarrekin lan-boltsea zabaldu dau. Edozein dala afizinoa: kirola, sukaldaritza... bialdu datuak gurasoelkarrea@igorrekoeskola.com

helbidera.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu 664 303 528.

ETXEA GARBITZEKO LAGUN BILA

Arantzazun astelehen eta eguen goizetan etxea garbitzeko persona baten bila nabil. Lanerako prest egon ezker, telefono honetara idatzi edo deitu: 669 949 471.

KLASE PARTIKULARRAK IGORREN

3-4 DBH eta Babxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira institutu ondoan. Informazio gehiagorako Whatsapp-a bidali zenbaki honetara: 608 381 984. John.

LOGELAKO ALTZARIAK SALGAI

Logelako altzariak saltzean dodaz. Interesdunek deitu telefono honetara: 689 565 364.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa



Zenbaki honetako saridunak:

1 Karmelo Uriarteren "Ederriko". Kontau behar dot liburu bana.

2 Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Keu Agirretxearen kontzerturako.

M^a Angeles Larraondo (Zeberio)
Ruper Lekue (Igorre)

Xabier Iturriaga (Areatza)
Lorea Arribas (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 20 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean moda
sema
0-16
Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
Tfnoa. 94 631 92 96 • sema@sema.com

KIRRU
ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROSER
SABINO ARANA 38
IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

BIXER
TABERNA
Beko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARO

begitu

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAK KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 · 94 673 70 55 · 94 612 11 96 · Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3, behea · Igorre (Bizkaia)

Pinturas Aratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3 - 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tlf: 94-673-70-87
Tlf: 609-79-40-54

NAIARA Hertz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

begitu
eus

Arratiako AEK

MATRIKULA ZABALIK

- Maila guztiak, azterketa ofizialak: A1-A2-B1-B2-C1-C2
- Ordutegi zabalak

Elexalde 10, Igorre
94 631 56 57/ 607 632 916 · arratia@aek.eus

DIRULAGUNTZAK

Eusko Jaurlaritzan Arratiako udal guztiek diruz lagunduta

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazioa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

ZORNOTZA
CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL
LANBIDE HEZKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

LANDUNEI ETA LANGABEEI ZUZENDUTAKO IKASTAROAK

LANBIDE K.	IKASTAROA	ORDUAK	HASIERA
GIZARTE ETA KULTUR ZERBITZUAK PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA (praktikak enpresan)			
Lanean dauden pertsoneri zuzenduta			
OC22480007	Mendekotasuna duten pertsoneri laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan. MODULOAK MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	2022ko urria
Lanean ez dauden pertsoneri zuzenduta			
22480008	Mendekotasuna duten pertsoneri laguntza soziosanitarioa ematea gizarte-erakundeetan. MODULOAK MF1016, MF1017, MF1018, MF1019	370	2022ko azaroa
FABRIKAZIO MEKANIKOA			
OC22480005	Soldadura karbono-altzairuzko xafila eta profalez estalitako elektrodoekin eta oinarrizko elektrodoekin (UF1624)	90	2022ko urria
OC22480006	Soldadura karbono-altzairuzko, altzairu herdoilgaitzezko eta beste material batzuetako egiturez estalitako elektrodoekin (UF1625)	90	2022ko azaroa
MERKATARITZA ETA MARKETINA			
OC22480051	Sare sozialen bidez saldu: facebook y pinterest	12	2022ko urria
OC22480052	Dropshipping	30	2022ko azaroa
OC22480064	Shopping on mobile: merkataritzarako aukerak mugikorren bidez salduz	12	2022ko abendua
INSTALAZIOA ETA MANTENIMENDUA PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIA			
Lanean ez dauden pertsoneri zuzenduta (praktikak enpresan)			
22480010	Ekipo industrialaren mantentze lanak eta muntaketa mekanikoa (IMAQ0108)	510	2022ko urria

Informazioa eta izen ematea: www.lanbide.euskadi.eus (Prestakuntza, Kodea)

OHARRA: Taldeak sortu ahal, hasiko dira ikastaroak.

Urritxe auzunea, z/g · Tfno: 688 665 300 · 946 730 251
48340 AMOREBIETA-ETXANO (Bizkaia)
e-mail: maranburu@fpzornotza.com · www.fpzornotza.com